

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

6/2019 Mozioa, urtarrilaren 23koa, zeinaren bidez Eusko Jaurlaritzari eskatzen baitzaio Euskadiko Hidrokarburoen Baltzua ezabatzeko beharrezkoak diren pausuak abiarazi ditzala

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urtarrilaren 23an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

6/2019 Mozioa, urtarrilaren 23koa, zeinaren bidez Eusko Jaurlaritzari eskatzen baitzaio Euskadiko Hidrokarburoen Baltzua ezabatzeko beharrezkoak diren pausuak abiarazi ditzala.

Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote egin beharreko pausoak egin ditzala Euskadiko Hidrokarburoen Baltzua ezabatzeko, abenduaren 19ko 279/1983 Dekretuaren bosgarren atalean xedatutakoaren arabera, harik eta azkentzea ebazten den arte, eta aplikagarri diren arauetan ezarritako izapideak bete ondoren. Halaber, eskatzen da sozietate horretako langileak Energiaren Euskal Erakundera atxiki daitezela.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 23a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA